

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua arrakastatsua izateko, hortz klinika ireki aurretik, behar ditugun baliabideak argi izan behar ditugu. Horregatik, asko pentsatu ondoren, ondorengo baliabideak behar ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** lokala betetzeko eta tratamenduak burutzeko behar diren material eta produktu guztiak dira. Hauek ondorengo bi taldeetan sailkatzen dira eta ezinbestekoak dira pazienteak babesteko hortz klinikan dauden bitartean:

- *Oinarrizko materialak:* tratamenduak egiteko behar dugun gutxieneko materiala eta produktuak dira. Adibidez, besaulkia, eskuilak eta pasta, esterilizatzeko autoklabea, X-izpien makina, esplorazio kit-ak, aho eta hortzen garbiketa egiteko ultrasoinua, arraspatzeak egiteko kuretak eta beste hainbat tratamendu burutzeko tresneria.



- *Babes neurriak:* lokala, profesionalak eta pazienteak babesteko, oso garrantzitsuak dira. Pertsona bakoitzak duen izaeraren arabera, ondorengo babes-neurriak sustatuko dira:

- Profesionalentzat: pazienteek, agente kutsakorrek kontaktuan egotea oso erraza denez, derrigorrezkoa izango da, babes indibidualaren ekipoa erabiltzea: eskularruak, mozorroak, betaurrekoak, txanoa, eskalpoiak eta garbi dagoen pijama.




- Pazienteentzat: hauen segurtasunari begira, hainbat protokolo antolatu ditugu, hala nola: haurdunen kasuan (RX ez egitea, errebisioak maiztasun handiagoarekin egitea...) eta helduen kasuan (higiene gomendioak idatziz ematea). Horretaz gain, desfribilagailu bat edukiko dugu eta paziente bakoitzarekin erabiltzen den tresneria guztia desinfektatuko eta esterilizatuko da.



- Lokalerako: su-iltzalgailua, berunezko atea X-izpietatik babesteko, eta hortz klinika guztitik seinalazioa egongo da.

- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** klinika bost pertsonaz osatutako taldeak osatuko du. Talde honen barruan, 3 espezialitate desberdinak daude: bi higienista, bi odontologo eta administrazioko bat. Guztiek eskaintzen diote taldeari lan egiteko gogoak, profesionaltasuna eta ezagutza desberdinak.



Odontologoek eta higienista batek aurretik izandako lan-esperientzia dute. Beste higienista, orain dela gutxi goi mailako heziketa bukatutako langilea da (modu honetan, mundu laboralean hazi ahal da) eta administrazioko langilea, harreran egongo da, sartzen diren paziente guztiak agurtzeko eta eroso sentiarazteko.

- **Finantzia-baliabideak:** hortz klinika zabaltzeko, guztira behar izango dugun diru-kostua 250.000-300.000€ izango da, kontuan hartuta langileek soldata bat jasoko dutela hilabetero.

